

Iñaki Garcia Koch

Donostia, 1963. Itoitzekin Solidarioak kolektiboko kidea. 1996an, Itoizko urtegiaren aurkako sabotajea –kableen mozketak– burutu zuten zortzi kideetako bat da. 2001ean poliziak Leonen harrapatu zuen hainbat urtez ihesi ibili ostean: lau urteko espetxe zigorra bete zuen. Kide haietako seik sasitan segitzen dute, eta zazpigarrena, Ibai Ederra, espetxean dago. Solidarioak mugimenduaren historia, izaera, xedeak, pozak eta minak jalgi dira Iñakirekin solasean.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Josu Santesteban



«Otsailean 'libre' izango naiz eta borrokan jarraituko dut»

Okupazio mugimendu historikoen partidea da, desobediencia eta intsumisio bidean aritutakoa. Gipuzkoako zenbait herritan okupatzaile aritu ondoren, 1995ean, Iruñera iritsi zen Euskal Jairen okupazioan parte hartzeko. Hiriko etxeen okupatzaile izatetik mendiko herri abandonatuen okupatzaile izaterainoko bidea egin zuen. Solidarioek Itoitz urtegiaren eraikuntzako kableak moztu zituztenez Arizkuren herrian bizi zen. Egun Irati oihanaren inguruan bizi da, baldintzapeko askatasunean. Lurrari atxikia segitzen du, laboraria lanetan: “Ez naiz ekologista, laboraria baizik. Azkeneko hotzek ganbarako patatak izoztu dizkigute, arraioa!”, diosku irribarretsu Iñakik.

Arizkunen bizi zela, Itoizko Koordinadorako Patxi Gorraiz eta Dani Unziti bizilagunak ezagutu zituen, besteak beste. Urtegiaren eraikuntzaren aurkako konpromisoa hartu zuen. 1996rako Koordinadorak legezko bide guztiak urratuak zituen urtegia geldiarazteko, baita Auzitegi Gorenak arrazoia eman ere. Hots, urtegia legearen aurka eraikitzen ari zela erakutsi zuten. Sistemak baina, hamaika jukutria erabiltzen du bere interesen alde egiteko: “Baiki. Hartara, Solidarioak osatu genuenok beste borroka bide bati ekin genion: ekintza zuzenari. Baina betiere, pertsonen aurka ekin gabe. Urtegiko kableak moztu baino lehen 20 ekintza burutu genituen jada”.

Eraikuntzako lanabesen aurkako ekintza haien egileek beren burua erruztatu edo inkulpatu zuten, eta oraindik ere zigorra ordaintzen ari dira. Urtegiaren kableak moztu zituztenek ere euren burua entregatu zuten. Estatuko instituzioek baina gupidarik gabe egin du euren aurka. Honatx horren lekukotasuna.

la hamar urte joan dira sabotajetik. Zer da Solidarioak taldeko kideez?

Egileek ekintzak gure gain hartu genituen, baita beste herritar askok ere. Ni 2001ean harrapatu ninduten, eta Ibai Ederra hiru urte beranduago. Ibaik martxoan bi urte beteko ditu espetxean. Zigor bera jarri ziguten. Beste



“Gure etxea defendatzeagatik –ama lurra defendatzeko eskubidea dugu– egin duguna ez da terrorismoa, haatik, ‘terrorismoa’ren aurka ezarritako legeak eta zigorrak aplikatu dizkigute”.

seiak bilaketa eta harrapaketa agindupean bizi dira, ihesari emanda. Jende askok ahaztua izango du, baina guk 1996an gure burua entregatu ondoren bi hilabete eman genuen espetxean. Herritarren mobilizazioari esker fidantzarik ordaindu gabe atera ginen. Gero epaituak izan ginen eta bakoitzari bost urteko zigorra ezarri ziguten. Ihes egin genuen. Legeak lege, ekintza harengatik ez genuen horrelako zigorraren arriskurik, baina epaileek Nafarroako Gobernuak urtegiko guardia eraso izanaren akusazioa ontzat eman zuten. Finean, burutu ez genuen delitu batenagatik kondenatu gintuzten.

Hautu latza eta zaila iheslari bizitzea. Euskal Herrian, zoritxarrez, iheslari samalda dago. Ni Hego Amerikan ibili nintzen ihesi eta harrituta gera-

tu nintzen, motibo ezberdinengatik Espainiako “justziarengatik” ihesi zebilen jende pilo topatu nuen, bizi-modu finkorik gabe. Ni okupazioaren munduan aritutakoa naiz eta moldatu nintzen bizitza horretara –tira, gero ni harrapatu ninduten lehenengo, paradoxa (*kar, kar, kar*)– baina badaude lan finkoa izan dutenak, nominak, hipotekak edo konpromisoak dituztenak, etxea ordaintzen ari direnak, pentsa. Ihesari emanda bizitzea zaila da, beste mota bateko zigorra. Gure kasuan, ondo bidez, 12 urte ihesi pasa ondoren zigorra preskribitzen zaigu. Baina demagun, iheslaria 12 urte betetzear delarik harrapatzen badute, bost urteko zigorra bete beharko du. Psikologikoki gaitz gogorra da.

Zuk elkartasuna eskaini diozu kausa bati. Elkartasunik jaso al duzu zigorra betetzean?

Bai. Espetxean nintzela oso babestua sentitu nintzen, ez bakarrik Euskal Herriko pertsonen aldetik. Iruñeko espetxean egon nintzen bitartean 3.000 gutun baino gehiago jaso nituen: Euskal Herriatik, Estatuatik –eskerrik beroenak Zaragozako Torrero auzoko kolektibo errepublikazalearentzat–, Europatik eta beste kontinenteetatik ere bai. Presoak babesten dituzten hainbat kolektibo daude munduan, oraindik ere oilo-ipurdia jartzen zait.

Espetxean sartu aitzin Guardia Zibilaren esku izan zinen, baita tortura salatu ere.

Jakina, torturatua izan nintzen –izan ginen– eta ez bakarrik fisikoki, psikologikoki ere bai, eta ez ekintzaileok bakarrik. Sabotajea egin ondoren gure burua entregatu genuen eta Guardia Zibilak hedabideetako langileak albo batera eraman zituen eta tratu txarrak emateaz gain, euren materiala, milioiak balio zituen, hondatu zuten. Niri hantzeko zainak eta esku bateko nerbioa puskatu zizkidaten, besoa hiru hilabetez zintzilik izan nuen sentsibilitaterik gabe, tinpano bat leherrarazi zidaten... Espetxean sartzean ispilu aurrean jarri eta nire –gure– burua ez genuen eza gutzen. Gure aurpegiak Unai Romanoren argazki zoritxarreko eta “ikusgarri”aren berdinak ziren.

Estatuak “terrorista”tzat hartu zaituzte.

Niri “terrorismo” hitza ez zait batere gustatzen. Niretzat borroka armatua gauza bat da, terrorismoa aldiz Estatuaren indarkeria da, hots, boterearen, kapitalismoaren eta instituzioen indarkeria da terrorismoa, finean eta funtsean *desarrollismoa* terrorismoa da. Egunero milaka pertsona gosez hiltzen dituen politika ekonomikoa ere terrorismoa da. Zergatik? Hargatik! Guk gure etxea defendatzeagatik –ama lurra defendatzeko eskubidea dugu, ezta?– egin duguna ez da terrorismoa, haatik, “terrorismoa”ren aurka ezarritako legeak eta zigorrak aplikatu dizkigute.

Euskal gatazka delakoa tarteko izanda, gogorrago jokatu dute zuekin, alegia.

ITOIZKO URTEGIA PUSKA LITEKE

«Ardurak argitu eta garbitu gabe ez dago demokraziarik»

Batetik hauxe diot: puskatuko ahal da! Horrek arrazoia emango liguke, baina nik ez dut milaka lagun eta adiskide hildakoren bizkar arrazoia izan nahi. Are gutxiago ezagutzen ditudan herriak urak gaintututa ikusteak. Gainera lur horietan bizitzea eta lan egitea espero dut. Zaraitzu haranean bizi naiz eta inguruotan lurrikara txikiak daude, lurrikarak sentitzen ditugu gure azpian. Artzain eta baserritarrei horiei buruz galdetzen diegu eta beren hizkuntzan ondo baino hobeto azaltzen dizkigute lurrikaren nondik norakoak, gauza arraroak sentitzen dituzte bere etxe eta zango-petan. Zer gertatuko da? Auskalo! Zoritxarrekoa litzateke urtegia lehertzea, ikaragarria! Baina, mesedez, ez dadila Biescasko auzian bezala gerta! Kalte ordainak diruz estaltzea. Gurasoak, anaia eta arreba galdu zituen gazte batek zioenez “niri dirua berdin zait. Nik legez kanpo egindako obraren (Kanpina) erruz galdu nuen familia osoa. Nork baimendu zuen legez kanpoko proiektu hori egitea? Zergatik ez doa kartzelara?” Hau da, ardurak argitzen eta garbitzen ez diren bitartean ez dago demokraziarik.

Bai. Nafarroako Gobernuari oso ondo atera zaio gurea, den-dena nahastu du. Solidarioak kolektiboan ideologia ezberdineko jendea aritu gara, baina ideia oso garbi batez: gure borroka urtegiaren eta Nafarroaren ubidearen aurkakoa da, inposizioaren aurkakoa. Gobernuak "desinformazioarako hedabideak" ondo baino hobeto erabili ditu. "Kale borrokako komandoak" ginea aditzera emateraino.

Ordainduak ez duela merezi pentsatu al duzu inoiz? Kostua handiegia dela, hots.

Borrokak badu bere kostua, jakina. Norberak ez du neurtzen zigor batek nola eragingo duen bere baitan. Niretzat, esaterako, kostua emozionala izan da. Espetxetik noiz aterako zaren ez jakiteak kiskali egiten zaitu. Nik, legez, bi urte bete ondoren libre izan behar nuen, ederki izorratu naute baina. Espetxeko zaintzak tortura psikologikoa lantzen du, beti duda-mudan zaitu, euren legeak ere ez dituzte betetzen. Euren legeen arabera, egin genuenarenengatik ez ginen zigortuak izan behar, baina engainu eta amarruen bidez nahi dutena egiten dute. Zu euren legeetara "egokitzen" zara, eta hala ere, eurek higatzen zaituzte lur jotzeraino. Horrek, batetik, dezente xahutu nau, baina aberastu ere egin nau. Kontzientzia argitu zait, bizitako-



"Beaumont familiak Patxi Gorraizi burua ederki berotu dio eta hauxe esan ere bai: 'Moztu harremanak Solidarioekin, bestela Koordinadorak larrutik ordainduko du'. Larrutik guk ordaindu dugu, bistan denez".

ak hainbat esparrutan ez nuen jakintza eman dit. Ez dizut esango nire bizitza berriz ere "arriskuan" jarriko nuenik, baina ez naiz ezertaz damutzen. Otsailan "libre" izango naiz eta borrokan jarraituko dut, borroka fronte asko dago-eta.

Borrokak baina gorabeherak sorrarazten ditu. Zer dela-eta Koordinadora eta Solidarioak kolektiboaren arteko moldatu ezina?

Adibide batez erantzungo dizut: 18/98 auziaren karietara hitzaldi batean parte hartu dut orain gutxi, eta bertan desobediencia zibila gaia eztabaidatu genuen. Ni ez naiz pertsona herratsua edo aihertsua, baina, hara, izateko moduko mitiboak badituz. Alegia, Estatuak ondo jakin du "gatazka" delakoa erabiltzen eta batzuk eta besteak elkarren aurka jartzen. Borroka berean ari bagara, ezin duzuna da zure aldean ari direnak kriminalizatu, hau da, besteak behatzez seinalatu eta esan: "Zuek betikoak zarete, terroristak zarete". Beaumont familiak Patxi Gorraizi burua ederki berotu dio eta hauxe esan ere bai: "Moztu harremanak solidarioekin, bestela Koordinadorak larrutik ordainduko du". Larrutik guk ordaindu dugu, bistan denez.

Argitu iezadazu hori gehixeago, arren.

Koordinadorak gurekiko izandako jarrerak gure kolektiboaren kriminalizazioa ekarri du. Ni FIES-III preso izendatu ninduten eta Koordinadorakoa ere modu beretsuan harrezaketan. Adibidez, Estatuak Zumalabe Fundazioarekin edo Desobediencialariak kolektiboarekin egin duena egin zezakeen Koordinadorarekin. Ni espetxean nintzela Koordinadora publikoki deslotu zen Solidarioak taldearengandik. Ondo, normala da. Baina hori egin ondoren "horiek gaiztoak dira" esatea eta gu seinalatzea ez da zuzena. Horrek min ikaragarria egiten du. Nik Patxi Gorraizi eskutitzak bidali nizkion espetxetik, mesedez horrela ez jokatzeke eskatuz. Besteak beste, hauxe esan nion: "Ni zure autoan joan nintzen sabotajea egitera. Beraz, egindakoa egin ondoren, zu traidorea zara".

Horrela idatziko dut...

... badakit hitz hauek tirabira eta liskarrik sorrarazten dituztela, baina jendeak gertatua ezagutu behar du. Ibai Ederra preso dago, jende askok bilatua eta jazarria izaten segitzen du, sasitan dago borroka honegatik, kausa berarengatik. Hori esatea ez al da haizu eta zilegi? ■

NAFARROAKO UBIDEA

«Tamalez, dituen hektareen arabera balio du laborariak»

Itoizko urtegia eta Plan Hidrologiko Nazionalaren obrak gezurren gainean egiten ari dira, gezur ekonomiko eta *desarrollista*n oinarrituta. Politikarien *trapitxoa* edota xehekako salerosketa handiak daude atzean. Ebro ibaiaren arko laborari gehienak adin handikoak dira. Ubidea datorrela-eta, ubidearen lotura eta beren lurrak ordaindu –dirutza– beharko dituzte berriz ere. Hauen seme-alabek bizitza osorako hipotekatu beharko dute, sistemak hautatutako uzta landu beharko dute, beren laboreak murriztua eta ureztatua izango da, beste lurralde batzuetako laborantza ordezkatzera behartuak. Murtziakoa kasu. Hango lurrak arrunt lehorreraziak daude engoitik. Negutegiko baratzeak –berotegiek– Erriberako lurrak estaliko dituzte aurki, horrek inmigrazioaren ustiaketa dakar. Laborariak ez du deus balio, hektarea kopuruak baizik, tamalez, dituen hektareen arabera balio du laborariak. Uraren lotura hartzen ez duenak –txikia delako– ezin du lehiatu, eta hor dago *terratienientea* bere lurra erosteko. Hau da, laborariak politika *desarrollista*ri segitu ezinean, lurra laborantzako enpresa handien aldeko politika sustatzen dutenen esku geratuko da.